

## R300: EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIA SENDOTZEKO IKASTAROA, IRAKASLE ETA HEZITZAILEENTZAT

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 365 ordu inguru (hiruhileko bat)

**HARTZAILEAK** Herri-ikastetxeetako langileak: irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak; Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoak, eta aldi baterako irakasle eta hezitzaileak; ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak; Hezkuntza ikuskaritzako eta irakaskuntzaren laguntza-zerbitzuetako langileak.

HE2, C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara-maila dutenak.

**ORDUTEGIA** Goizez, bosna ordu

### LEKUA

### HASIERA

### AMAIERA

Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo

2023/09/07

2023/12/22

Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo

2024/01/08

2024/03/22

### HELBURUAK

- Irakasleek eta hezitzaileek euskarazko hizkuntza-konpetentzia hobetzea, sakontzea eta sendotzea, hizkuntza modu eraginkorrean eta eredugarrian erabili dezaten lanean.
- Irakasleek eta hezitzaileek berariazko hizkuntza-baliabideak eskuratzea irakasjardunaren eta hezitzaile-lanaren alderdi guztietan egoki aritzeko.

### EDUKI NAGUSIAK

- Irakasleek eta hezitzaileek hizkuntzaren bost dimentsioetan (idazketa, irakurketa, mintzamina, entzumena eta elkarreragina) lanean egoki jarduteko baliabide linguistiko eta diskurtsiboak.
- Irakasjardunarekin zerikusia duten ahozko eta idatzizko testu-generoak.

### OHARRAK

- Ikasketari-nahiek, izena ematearekin batera, **galdetegi bat** bete eta erantsi beharko dute, adierazteko euskarazko komunikazio-konpetentziaren zer arlotan hobetu nahi duten berariaz (ikus Deialdiaren IV. Eranskina).

## R400: EUSKARAZKO IKASMATERIALAK SORTZEN TREBATZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 365 ordu inguru (hiruhileko bat)

**HARTZAILEAK** Herri-ikastetxeetako langileak: irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak; ikastetxe pribatuetao irakasle finkoak.

HE2, C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara-maila dutenak.

**ORDUTEGIA** Goizez, bosna ordu

### LEKUA

### HASIERA

### AMAIERA

**Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo**

**2023/09/07**

**2023/12/22**

### HELBURUAK

- Irakasleek eta irakasle-taldeek kalitatezko euskarazko material didaktikoak ekoiztea premiazko arloetan, eta eskola-komunitatearen esku jartzea.
- Irakasleen euskarazko komunikazio-kompetentzia hobetzea, sakontzea eta sendotzea, testugintzaren eremuan.
- Irakasleak ikasmaterialgintzan era autonomoan aritzeko gaitzea.

### EDUKI NAGUSIAK

- Ikasketariak ikastaroaren hasieran berariazko prestakuntza hartuko dute testugintzaz, testu-edizioaz, estiloaz... Hortik aurrera, IRALEko irakasle-tutoreen laguntzarekin prestatuko dituzte materialak.

### OHARRAK

- Ikasketari-nahiek (bakarka edo taldeka) egitasmo-txosten labur bat prestatuko dute 2023ko maiatzaren 18rako landu nahi dituzten ikasmaterialen ezaugarriak azaltzeko (ikus egitasmo-txostena prestatzeko gida).
- Aurkeztutako egitasmo-txostenen balioespena egingo du IRALEk, irizpide hauekin: materialen beharra eta aplikagarritasuna, egitasmoaren egingarritasuna, lanaren deskribapenaren zehaztasuna eta hizkuntzaren kalitatea.
- Hauek dira 2023-2024 ikasturtean euskarazko eskola-materialak eta baliabideak sortzeko premiazko arloak: Lanbide Heziketakoak; Haur, lehen eta bigarren hezkuntzan Hezkuntza Sailaren hurrengo lehentasun-ildoari dagozkionak: "Euskara: gaitasuna eta erabilera", Batxilergoan zein DBHn euskarazko material gutxi duten irakasgaietakoak; curriculumaren euskal dimentsioarekin lotura dutenak.
- Hezkuntza Sailak hartuko du material didaktikook argitaratzeko eta katalogatzeko ardura.
- Argitaratzeko, Sailaren onespina izan behar dute material didaktikoak.

**Kontuan hartu:** R400 ikastaroa eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeak bete beharreko dokumentu bat eranstea (Deialdiaren V. Eranskina). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro horietan lan egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.

## R600: CURRÍCULUMAREN EUSKAL DIMENTSIOA IRAKASARLOETAN ETA IKASTETXEAN LANTZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 365 ordu inguru (hiruhileko bat)

**HARTZAILEAK** Herri-ikastetxeetako langileak: irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak; ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak.

HE2, C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara-maila dutenak.

**ORDUTEGIA** Goizez, bosna ordu

LEKUA	HASIERA	AMAIERA
Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo	2023/09/07	2023/12/22
Donostia, Bilbo	2024/01/08	2024/03/22

### HELBURUAK

- Curriculumaren euskal dimentsioa eskolan lantzeko kontzientzia piztea eta gaiaren gaineko hausnarketan sakontzea.
- Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko estrategia didaktikoak berariaz jorratzea, bai ikastetxe mailan, bai irakasarlo bakoitzean aplikatzeko.
- Irakasleek euskal curriculumeko eduki soziokulturaletan sakontzea.
- Ikasleak euskararen testuinguru soziokulturean murgiltzeko bideak jorratzea, motibazioa piztu eta hizkuntza-kompetentzia sendotzen laguntzeko.
- Askotariko hizkuntza- eta kultura-giroetako ikasleek euskaradunen komunitatearekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua eta motibazioa handitzeko estrategiak lantzea eta garatzea.
- Curriculumaren euskal dimentsioaren lanketarekin lotutako ikastetxeko ekimenak eta proiektu globalak sortzeko, bultzatzeko eta indartzeko bideak jorratzea.

### EDUKI NAGUSIAK

- Euskal gizartearen izaera historiko eta soziokulturala: euskal kulturaren oinarriak.
- Eskola eta euskararen testuinguru soziokulturala.
- Euskal curriculumaren berariazko edukiak irakasarloetan.
- Euskal curriculumak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan.

### OHARRAK

- Ikasketariak curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko proiektu bat garatuko dute, ikastetxerako edo haien irakasarloetarako.
- Ikasketari-nahiek (bakarka edo taldeka) egitasmo-txosten labur bat prestatuko dute 2023ko maiatzaren 18rako ikastaroan landu nahi duten proiektua aurkezteko (ikus egitasmo-txostena egiteko gida).
- Proiektuak ikasturtean bertan eskolaratuko dira, ahal den neurrian, eta IRALEK egingo du prozesuaren jarraipena.
- Ikasketariak sortutako ikasmaterialak argitaratzeko proposamena egin

**Kontuan hartu:** R600 ikastaroaren eskaera egiteko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeak bete beharreko dokumentu bat eranstea (Deialdiaren VI. Eranskina). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro horietan lan egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.

**R900: EUSKARAZKO AHOZKO KOMUNIKAZIOA IRAKASJARDUNEAN****INFORMAZIO OROKORRA****IRAUPENA** 365 ordu inguru (hiruhileko bat)**HARTZAILEAK** Herri-ikastetxeetako langileak: irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak; ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak.

HE2, C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara-maila dutenak.

**ORDUTEGIA** Goizez, bosna ordu**LEKUA****HASIERA****AMAIERA****Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo****2024/01/08****2024/03/22****HELBURUAK**

- Irakaslearen ahozko komunikazio-kompetentzia indartzea irakasjardunarekin eta irakasarloaren transmisioarekin eta lanketarekin lotutako alderdi guztietan.
- Irakasleak modu eraginkorrean eta eredugarrian erabiltzea euskara eskolan, ikasgelako zein ikasgelatik kanpoko komunikazio-testuinguru formaletan eta informaletan.
- Irakasleek euskarazko hizkuntza-baliabide ugari eta askotarikoak eskuratzea irakaslanaren alderdi guztietan egoki jarduteko, baita sentimenduak, emozioak eta jarrerak adierazteko ere.
- Ahozko komunikazioak curriculumaren arlo guztietan duen garrantziaz jabetuta, nork bere arloko irakaslanean aplikatzeko estrategia didaktikoak garatzea.
- Irakasjarduna ikasleen hizkuntza-kompetenziaren eta -premien arabera egokitzeak garatzea, ahozko testuen ulermenaren eta ekoizpenaren alorretan.
- Ahozko komunikazioarekin lotutako dimentsioak beste hizkuntza-dimentsioekin batera modu integratuan lantzeko estrategiak garatzea.

**EDUKI NAGUSIAK**

- Irakasleen diskurtsoaren ezaugarriak.
- Eskolako ahozko testu-generoak.
- Irakasleen euskarazko ahozko komunikazio-kompetentzia hobetzeko estrategiak eta baliabideak.
- Ahozko erregistroak eta aldaerak.
- Gelako elkarrekintza hobetzeko estrategiak.
- Euskarazko ahozko komunikazioa gelan eta ikastetxean bultzatzeko estrategiak.

**OHARRAK**

- Ikasketariak ahozkotasuna berariaz lantzeko proiektu bat garatuko dute, ikastetxerako edo haien irakasarloetarako.
- Ikasketari-nahiek (bakarka edo taldeka) egitasmo-txosten labur bat prestatuko dute 2023ko maiatzaren 18rako ikastaroan landu nahi duten proiektua aurkezteko (ikus egitasmo-txostena egiteko gida).
- Proiektuak ikasturtean bertan eskolaratuko dira, ahal den neurrian, eta IRALEk egingo du prozesuaren jarraipena.
- Ikasketariak sortutako ikasmaterialak argitaratzeko proposamena egin dezake IRALEK.

**Kontuan hartu:** R900 ikastaroa eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeak bete beharreko dokumentu bat eranstea (Deialdiaren VII Eranskina). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro horietan lan egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.